



# COVID IRAUNKORRA LONG COVID

Mundu mailako pandemia deklaratu zenetik urtebete baino gehiago igaro ondoren, pixkanaka, covid-19ren ondorio berri eta gogorrak aurkitu ditugu. Horietako bat covid iraunkorra edo long covid izeneko da. Estatuko osasun-agintariak aitortzen duten bezala, birusaren sintomak dira, eta luzaroan iraun dezakete. Ez da zerbait puntuala, datu batzuen arabera, infekzioa gertatu eta bost astera sintomak dituzten pertsonak %20 dira. Eta 3 hilabete igaro ondoren ere, biztanleen %10ek. Era berean, biztanleriaren %10ak COVID19a pairatu duela kalkulatu da.

Sintoma iraunkor ohikoenak nekea, muskuluetako eta artikulazioetako mina, zorabioak, sukarra eta loaren gorabeherak dira. Beste sintoma batzuk ere ager daitezke, hala nola eztula, aire-falta, beherakoa, dastamena eta usaimena galtzea, ilea erortzea, azazkaletako mina, kontzentratzeko zailtasuna eta oroimena galtzea, palpitzioak edo arteria-tentsioa aldatzea. Gaitz horiek guztiek iraun dezakete denboran, eta gaitasun funtzionala eta lanekoa mugatu. Baina ziur gaude errealitatea datu horiek diotena baino askoz handiagoa dela, arazo guztiz gutxietsi baten aurrean baikaude, eta, beraz, errealitatea ezagutzen duguna baino askoz zabalagoa eta gogorragoa da.

Baina gertaera horien ebidentzia zientifikoa egon arren, eta Osasunaren Mundu Erakundeak berak patologia hori onartu arren Gaixotasunaren Nazioarteko Kodea emanaz (CIE 11), gaur egun oraindik ez dugu gertaera hori onartzen eta, kasu askotan, pertsona batek covid-19 pasatu eta sintomak bere horretan jarraituta, baja ematen zaio egia ez den gaixotasun batengatik, hala nola buruko mina, eztarriko mina, etab. Beste kasu batzuetan, covid-19a pasatu izanaren konstantziarik ez dago; izan ere, duela urtebete, behar diren probak (PCR) egin ez zirenez, ez dago erlazio kausal zuzenik gaixotasunarekin, eta hasieratik, errealitatearekin zerikusirik ez duten diagnostikoak dituzte.

Horren guztiaren ondorioz, urte bateko baja izatera iristen diren lehenengo kasuak aurkitzen hasi gara, eta beraz, baja hori Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren (GSIN) mende dago. Erakunde horrek erabakitzen du zer egin baja horrekin, hau da, eztarriko minagatiko baja batekin... Eta badakigu zein izango den emaitza.

Horregatik, gaixotasunaren onarpen formala lortzeko, ikerketa, tratamendua etab. Lortzeko ekintza politiko eta sozialaz gain, gida txiki honek argi pixka bat eman nahi die prozesu horiei, zailtasun guztiekin aurre egin ahal izateko, baina berme apur batekin.

## BAJA LABORALAK. 12 HILABETE BETETZERAKOAN

Laneko baja guztiak, hala gertakizun arruntenak (gaixotasun arrunta edo lanetik kanpoko istripua) nola laneko gertakizunenak (laneko istripua edo lanbide-gaixotasuna), osasun-zerbitzu publikoaren edo gizarte-segurantzaren mutualitate laguntzaileen mende daude. Horiek guztiak GSINen mende geratzen urte batetik aurrera.

Hain zuzen, GSINak bajaren edozein unetan deitzeko eskumena du, baita urtea baino lehen ere, baina ez da hala gertatzen eskumen hori askotan mutualitate patronalen esku uzten dutelako, eta, gainera, une honetan ez du baliabide nahikorik.

Beraz, 12. hilabete horretatik aurrera, GSINeko mediku ebaluatzaile batek deituko digu (gaur egun ez dute kasu guztietan egiten, informazio gehigarria eskatzen da, baina aurrez aurreko hitzordurik gabe). Balorazioa egingo du txostenen arabera (ez gaituzte ia aurpegira begiratzen, garrantzia txostenek diotenak du), eta balorazio hori Ezintasunak Baloratzeko Taldeari (EBI)

ematen zaio (normalean "mediku tribunala" bezala ezagutzen dena), eta proposatzen du:

- > Alta ematea (alta da, ondorio guztiekin)
- > 180 egun arteko luzapena
- > Ezintasun iraunkorraren proposamena (partziala, osoa, erabatekoa edo balio-ezintasun handia)

## ZER DA EBI-A?

Ezgaitasuna ebaluatu, kalifikatu eta berrikusteko organo eskuduna da, bai eta Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko prestazio ekonomikoetarako eskubidea aitortzeko ere, aldi baterako ezintasunagatik edo ezintasun iraunkorragatik, maila guztietan, eta ezgaitasuna eragiten duten gorabeherak zehazteko.

GSINeko zuzendaritza probintzial bakoitzak ezintasunak baloratzeko talde bat du, EBI bat.

Bost pertsonak osatzen dute.

- > Lehendakaritza: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren balio-ezintasuneko zuzendariordetza probintzuala edo erakunde horretako zuzendaritzak izendatutako funtzionario bat.
- > Batzordekideak: GSINeko Zuzendaritza Nagusiak izendatzen ditu. Kide gisa jarduten dute:
  - Gasteizko eta Iruñeko Osasun Zerbitzuko zuzendaritzak proposatutako ikuskaritza medikoa.
  - GSINeko langile edo pertsona fakultatibo bat.
  - Laneko eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaile bat, erakunde horrek proposatua. Era berean, laneko istripu edo eritasun profesionalen kasuan, ISPLN edo Osalaren ordezkari bat.
  - GSINeko Zuzendaritza Probintzian egin beharreko izapideez arduratzen den funtzionarioa. Pertsona horrek idazkari lanak egiten ditu.

Bide telematiko eta telefonikoz osasun ikuskaritzarekin zita eskatzea garrantzitsua da. Zita hau espedientea EBItik pasa baino lehen izan daiteke edota, alta medikuaren kasuan, ondoren. Bigarren eszenatoki honetan, "altarekin ezadostasuna" delakoa eskatu daiteke, osasun ikuskaritzak txosten egin behar duelarik horren inguruan. Ikuskaritzaren txostena ez da loteslea, baina baliagarria izan daiteke EBIaren erabakia baino lehenagoko froga klinikoen inguruko pertzepzioa aldatzen duten froga medikoen ekarpena egiten duen kasuetan.

Esan bezala, EBIk GSINeko mediku ebaluatzailearen proposamena jasotzen du, kasuan kasuko txosten guztiekin batera. Horretan oinarrituta, proposamen bat egingo dute, eta, azkenean, GSINeko Zuzendaritza Probintzuala izango da erabakia hartzen duen organoa, normalean, EBIk lehenago egindako proposamenarekin bat datorrena.

## ZER DA GASTEIZKO ETA IRUÑEKO GOBERNUKO OSASUN SAILEKO IKUSKARITZA MEDIKOA?

Besteak beste, Osasunbidea edo Osakidetzako oinarrizko arreta koordinatzen eta kontrolatzen duen ikuskaritza medikoa da, eta eginkizun nagusi hauek ditu:

### NAFARROA

- > Laneko ezgaitasunaren jarraipena, kontrola eta ebaluazioa egitea, mota guztietan eta barne direlarik bajak eta altak kontrolatzeko prozedurak eta 703/1996 Foru Aginduan aurreikusitako aldi baterako ezintasun egoerak, eta ezgaitasunei buruzko informazioa, aholkularitza eta laguntza ematea langileei.

- > Aldi baterako ezintasun prozesuei buruzko informazio eta azterketa sistemak ezarri eta mantentzea, batez ere aldi baterako ezintasunaren determinatzaile sozio-laboralak ezagutu eta horietan esku hartzeko.
- > Aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko behar diren jarduerak garatzea, hala eskatzen duten erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan arituz, laneko ezintasunen kudeaketari dagokionez, eta bereziki, Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarritzako Osasun Laguntzako, Laguntza Espezializatuko eta Osasun Mentaleko maila asistentzialen arteko lankidetzaren sustatzea, aldi baterako ezintasunagatik.
- > 203/1993 Foru Dekretuan ezarritako eginkizunak beteko ditu, besteak beste, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen ofiziozko alta medikoak eta 27/1994 Foru Dekretuan adierazitako funtzioak.
- > Gizarte Segurantzarekin Elkarlanean diharduten Mutuek gertakizun arrunt, profesional eta haurdunaldirako eta edoskitze naturalerako laneko arrisku egoera kasuetan egindako osasun jardueren jarraipena, aholkularitza eta ebaluazioa ezartzea.

## EAE

- > Ezintasun iragankorraren kudeaketa zuzentzea, sustatzea eta ebaluatzea Osasun Sailaren eskumenen esparruan, eta euskal osasun sistema publikoaren erreferentzia izatea prestazioa kontrolatzen duten gainerako erakundeekin (Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala eta Lan Istripu eta Laneko Gaixotasunen Mutuak) koordinatuta.
- > Ikuskaritzak osasun prestazioei eta horien koordinazioari dagokienez bete behar dituen irizpideak ezartzea, departamentuko beste organo eskudun batzuekin koordinatuta.
- > Ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuan ezarritakoa betetz, EAEko Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioaren erregimenari dagokion osasun publikoa ziurtatzeko araubideko altak eta bajak izapidetzea eta ebatzea.
- > Aldi baterako ezintasun prozesuen osasun azterketa, kontrola eta jarraipena.

## ZER EGIN KASU HAUETAN?

Funtsezko bi elementu daude: baja-urtera hurbiltzen ari garenean, ahal ditugun txosten guztiak biltzen hasi behar dugu. Esan dugun bezala, ez gurekin hitz egiten dutenean, EBIk ez digu gure osasun-egoeraren azterketa medikorik egiten, txosten medikoak baloratzera mugatzen dira, eta beraz, zenbat eta txosten mediko gehiago eta argiagoak izan orduan eta hobeto. Osasunbidea edo Osakidetzako medikuekin (lehen mailako arretarekin zein arreta espezializatuarekin) hitzordua ezartzeko egungo zailtasuna kontuan hartzen badugu, txosten horiek biltzeko aukera garaiz aurreikusi behar dugu.

Txosten horiek argiak izan behar dute, esan behar dute zer dugun eta ditugun patologiek zein nolako mugapena dakarten. Argi eta garbi esaten ez badute, arazo bat izan daiteke luzapen baten edo ezintasun iraunkor baten beharra baloratzeko, eta alta bat izango genuke, nahiz eta praktikan ez egon gure lanpostura itzultzeko moduan.

Beste elementu garrantzitsu bat da Iruñeko eta Gasteizko Osasun Sailtako ikuskaritza medikoa EBI horren parte dela, eta, Osasunbidea edo Osakidetzako oinarritzako arretarekin koordinatzen denez, haien txostenetan oinarrituko dela. Hori dela eta, hitzordua jarri aurretik ordua eskatu behar dugu ikuskaritza medikoarekin egoteko.

Ikuskaritza medikoa honela dago sailkatuta:

- > Nafarroa: Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren barruan (ISPLN). Balorazio Klinikoko-laboralaren eta Ikuskaritza Medikoaren Atala, aurretiazko hitzordua eskatzeko 848 42 37 50
- > EAE: Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren barruan, eta eremutan banatuta dago; beraz, gure osasun-zentroan bertan esango digute dagokigun mediku-ikuskatzailea.

Bi kasuetan, zein ikuskatzaile medikoa dagokigun jakin ondoren harremanetan jarriko gara hitzordua eskatzeko eta hara joa-

teko (egun telefonoz bada ere), gure kasua azaltzeko eta gertatzen dena azaltzeko. Horrela, EBIrako txosten bat egin ahal izateko eta horren ebazpena baldintzatzen saiatzeko, eta baita ikusiko dugunez, hala ere GSINak alta ematen badigu zeregin garrantzitsua izango duelako alta horren ondoren altaren "desadostasun" prozeduran.

Esan bezala, GSINak aukera hauek izango ditu:

> Aldi baterako ezintasunaren luzapena ematea, 180 eguneko mugarekin. Hortik aurrera:

- Alta

- Ezintasun iraunkorra.

- Salbuespenezko kasuetan, sendatzeko itxaropena dela eta, edo langilearen egoera hobetu dela eta, pertsonaren egoera klinikoak ezintasun iraunkor hori atzeratzea gomendatzen badu, gehienez ere 180 egun atzeratzen ahalko da (azken 180 egun horietan ez dago kotizatu beharrik).

> **Ezintasun iraunkorreko** espedientea hastea.

> Alta eman. GSINak alta ematen badigu, alta mediko horrekiko "desadostasun" prozedura bat dago:

- GSINaren altarekin ados EZ bagaude, desadostasun-idazki bat aurkez dezakegu (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 170.2 artikulua, baina 1430/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluan garatua) 4 egun naturaleko epean (gogoratu larunbat, igande eta jaiegunetan ere kontaktzen direla), altaren ebazpena jaso eta hurrengo egunean. (GSINren desadostasun-eredu bat dago)

- Desadostasun horretan adierazi behar da zergatik uste den bere alta medikoa ez dela behar bezala eman, egin gabeko ebakuntzagaratik, gertuko azterketa medikoagaratik...

- Desadostasunaren tramitazioan, aldi baterako ezintasun egoera edo baja medikoa ebazpena eman arte luzatzen dela ulertzen da.

- Desadostasun-eskaera aurkezten den egunean bertan jakinarazi behar diogu enpresari.

- Ezadostasuna aurkeztutakoan, Eusko Jaurlaritzako Ikuskaritza Medikoari bidaltzen zaio, eta bi gauza gerta daitezke:

- **Ikuskaritza Medikoak bajaran jarraitu behar dugula uste badu**, 7 eguneko epea duela GSINri alta medikoa berriz azter dezan proposatzeko. (Azken hitza duena beti da GSINa)

GSIN azterketa medikoaren proposamena jasotzen duenean, 7 egun natural ditu bere iritzia emateko, eta bi gauza gerta daitezke:

- Alta medikoa berrestea.

- Langilearen aldi baterako ezintasun edo baja medikoaren egoera luzatzea.

- **Ikuskaritza Medikoak lanerako gai garela uste badu**, eta alta medikoa baieztatuko du 11 eguneko epean; epe horretan erabakirik hartzen ez badu, Administrazioaren Isiltasunagaratik ezetsizat joko da.

- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren alta medikoa berresten bada, edo horrelakorik ezean, administrazio-isiltasunaren bidez ukatuzat jotzen denetik, 20 egun balioduneko epea dago Lan Arloko Epaitegian alta inpugnatzeko demanda aurkezteko.

